

**GARRAIO
ETA HERRILAN SAILA**

IRAGARPENA, Getariako portuko Gaztetapeko bigarren entsenadan industri-erakin bat egiteko administrazio kontzesioari buruzkoa. 4208

GIPUZKOAKO FORU DIPUTAZIOA

2/1993 FORU ARAUA, martxoaren 15ekoa, azaroaren 24ko 93/1992 Foru Dekretua eta Diputatuen Kontseiluko otsailaren 23ko Erabakia, Gipuzkoako Herrialde Historikoko arauteria fiskala uztaillaren 7ko 19/1992 Legeak, sozietateen erregimen eta inbertsio higiezinako fondoei eta titulazio hipotekarioko fondoei buruzkoak, aurrikusitakoari egokitzeari buruzkoa, konbalidatzekoa. 4209

MUNGIAKO UDALA

IRAGARPENA, Planeamendurako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari, Elorduigoitian dagoen Asiloaren Aldean, hasierako onarpena emateko dena. 4210

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PUBLICAS**

ANUNCIO relativo a la concesión administrativa de construcción de un edificio industrial en la segunda vaguada de Gaztetape del puerto de Getaria. 4208

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 2/1993, de 15 de marzo, de convalidación del Decreto Foral 93/1992, de 24 de noviembre, así como el Acuerdo del Consejo de Diputados de 23 de febrero, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo previsto en la Ley 19/1992, de 7 de julio, sobre régimen de sociedades y fondos de inversión inmobiliaria y sobre fondos de titulación hipotecaria. 4209

AYUNTAMIENTO DE MUNGIA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento en la Zona del Asilo sito en Elorduigoitia. 4210

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA**1494**

97/1993 DEKRETUA, apirilaren 6koa, Euskal Autonomi Elkarteko emakumezkoentzako ekintza positiboko planaren gauzatzea koordinatzeko Sailarteko Batzorde bat sortzeari buruzkoa.

Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko otsailaren 5ean eman zen 2/1988 Legearen 2. atalean ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea da erakundearen oinarritzako xedea. Horretarako, lege bereko 3. atalak xedatzen duenez, hauek dira, besteak beste, erakundearen zereginak: helburu hori lortzeko xedezko artezpideak antolatzea, eta Autonomia-Elkarteko herri-agintariak horiek erabil ditzaten indar egitea; Autonomia Elkarteko herri-agintaritzak bereziek burutu behar eta emakumearen egoeran eragina duten ihardunerako egitarauen artean beharrezko lankidetzak neurriak hartzea; eta Eusko Jaurlaritzako Sailei aholkuak eta laguntza ematea, eta emakumearen aldeko zerbitzugintza sustatzea.

Lege horretako 4. atalaren arabera, erakundearen egitekoa da halaber, batetik, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, bi seksuen arteko benetako eta egiazko berdintasuna eragozten edo zailtzen duten oztupoak kentzeko xedezko neurriak, indarra Autonomi Elkarte osoan izango dutenak, hartzea; eta bestetik, Egutegi-urte bakoitzaren hasieran, emakumea Euskadin zein egoeratan dagoen ebaluatzeko txostena eta arlo horretan herri-agintaritzek izan duten jokaerari buruzko txostena egitea. Horietan, egitamuko helburuak zenbateraino bete diren esan beharko da.

PRESIDENCIA**1494**

DECRETO 97/1993, de 6 de abril, sobre creación de la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad a lo establecido en el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, es fin esencial del mismo la consecución de la igualdad real y efectiva del hombre y la mujer en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco, para lo cual el artículo 3 de la citada norma legal dispone que serán funciones del Instituto, entre otras, elaborar las directrices destinadas a la consecución de dicho fin esencial e impulsar su aplicación por los distintos poderes públicos de la Comunidad, estableciendo las medidas de coordinación necesarias entre los programas de actuación a desarrollar por la Administración Vasca que tengan incidencia en la situación de la mujer, prestar asesoramiento y colaboración a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, así como fomentar la prestación de servicios en favor de la mujer.

Igualmente corresponde al Instituto, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 4 de la mencionada Ley, presentar al comienzo de cada legislatura un Plan de medidas dirigidas a eliminar las trabas que impidan o dificulten la igualdad real y efectiva entre ambos sexos, para su aplicación en el ámbito de la Comunidad Autónoma y así mismo, al inicio de cada año natural, un Informe sobre la evaluación de la situación de las mujeres en Euskadi y una Memoria sobre la actuación de los poderes públicos en ese campo, en los que se hará referencia al grado de cumplimiento de los objetivos del citado Plan.

Adierazitakoa garatzeko, Erakundeak, Euskal Autonomi Elkarteko emakumezkoentzako ekintza positiboko Plan bat egin zuen 1991-1994rako eta Jaurlaritzari aurkeztu zion, eta 1991ko maiatzaren 7an Jaurlaritzaren onarpena jaso zuen. Plan horretan zenbait neurri ezarri ziren eta horiek garatzea eta gauzatzea, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari dagokionez eta planak hartzen duen iharduketa-eremuen arabera, Euso Jaurlaritzako Sailei dagokie, bai eta, sail horiei atxikirik dauden erakundeei ere. Emakumearen Euskal Erakundeari berriz, hori bultzatzea, horren segimendua eta ebaluazioa egitea dagozkie.

Plan hori benetan gauzatzeko eta Administrazioaren iharduketa sakontzeko, beharrezkoa da beste aldi batekin hastea. Horretarako Sailek eta horiei atxikitako erakundeek, aukeratarako berdintasuneko politikan gehiago egin dezaten, arlo honetako iharduketak hobetzeko eta koordinatzeko, hain zuzen ere. Izan ere, lortu nahi diren helburuak, nahi gabe, oztopatuko lituzkeen kasuan kasuko gorabeherei itzuri egingo litzaieke. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da, Emakumearen Euskal Erakundea eta plan hori gauzatzeko parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako Sailen artean koordinazio eta elkarkomunikaziorako bide bat ezartzea.

Hori dela eta, Lehendakariak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko apirilaren 6an aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

1. atala. - Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauzatzea koordinatzeko, Sailarteko Batzorde bat sortzea. Sail hori, Emakumearen Euskal Erakundera atxikirik egongo da eta hurrengo ataletan datozen osaera, aginpideak eta iharduerarako araubidea izango ditu.

2. atala. - Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Plana gauzatzea koordinatzeko Sailarteko Batzordea osatuko dutenak hauek izango dira:

- a) Batzordeburua: Lehendakaria.
- b) Batzordeburuordea: Lehendakariatzako Idazkaria.
- c) Bokalak: Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria.

Aipatzen diren Sail bakoitzak izendatutako ordezkari bat, Sailburuorde mailarekin:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Lehendakariatza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Ekonomi eta Ogasun Saila.
- Zuzentza Saila.
- Osasun Saila.
- Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Kultura Saila.
- Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.
- Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Horiek, ordezeko bana ere izendatu beharko dute, eta ordezkatzeko dueneko pertsonaren maila bera eduki beharko du.

En desarrollo de lo señalado, el Instituto elaboró y presentó al Gobierno un Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi 1991-1994, el cual, en fecha 7 de mayo de 1991, recibió la aprobación del Gobierno Vasco. Dicho Plan establece una serie de medidas cuyo desarrollo y ejecución, en lo que afecta a la Administración de la Comunidad Autónoma y en función de las distintas áreas de actuación que comprende, está encomendada a diversos Departamentos del Gobierno Vasco, así como, a los distintos Organismos administrativos a ellos adscritos, encomendándose al Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, su impulso, seguimiento y evaluación.

La ejecución efectiva de dicho Plan y la profundización de la actuación de la Administración requiere iniciar una nueva fase, con una mayor implicación de los Departamentos y de los Organismos a ellos adscritos, en la política de igualdad de oportunidades que permita la mejora y coordinación de las actuaciones en la materia y evite disfunciones puntuales que pudieran dar lugar, involuntariamente, a un retraso en la consecución del objetivo final a conseguir. Por ello resulta necesario establecer un medio que sirva de coordinación e intercomunicación entre el Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea y los distintos Departamentos del Gobierno implicados en la ejecución del referido Plan.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el 6 de abril de 1993,

DISPONGO:

Artículo 1. - Se crea la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, adscrita al Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, que tendrá la composición, competencias y régimen de funcionamiento que se señalan en los artículos siguientes.

Artículo 2. - La Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, estará integrada por los siguientes miembros:

- a) Presidente: El Lehendakari
- b) Vicepresidente: El Secretario de la Presidencia
- c) Vocales: La Directora del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

Un/a representante, con rango Viceconsejero/a, designado por cada uno de los Departamentos que a continuación se indican:

- Educación, Universidades e Investigación
- Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autónomo
- Interior
- Economía y Hacienda
- Justicia
- Sanidad
- Trabajo y Seguridad Social
- Cultura
- Urbanismo Vivienda y Medio Ambiente
- Agricultura y Pesca

Estos designarán a su vez una persona sustituta que, en todo caso, deberá tener el mismo rango que a quien sustituya.

d) Idazkaria: Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusiko titularra.

Idazkaria etortzen ez denean edo gaisorik dagoe-nean, bokalik gazteenak ordezkatuko du.

3. *atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauzatzea koordinatzeko, Sailarteko Batzordeak egiteko hauek izango ditu:

a) Urte hasiera bakoitzean, zenbait ekintza konkreturen proposamena egitea, dagokion sailak, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauatzeko garapen estrategikoan, urtealdi horretan gauzatu ditzan. Proposamenok, Emakumearen Euskal Erakundearekin koordinatuz egingo dira.

b) Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauatzean parte hartuko duen Sail bakoitzak hartu beharko dituen neurriak koordinatzea.

c) Eusko Jaurlaritzari eta parte hartzen duten sailei, plana garatzeko eta gauatzeko egokitzat jotzen diren ekintzak proposatzea.

d) Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauatzean parte hartuko duten Sailen eta Emakumearen Euskal Erakundearen artean, elkarkomunikaziorako organu iraunkor gisa aritzea.

e) Geroko arauen batean eman dakizkiokeen beste zenbaitzuk.

4. *atala.*– Aurreko atalean adierazitako egitekoetz gain, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren gauatzeko Sailarteko Batzordekideen ardura izango da, datozen Saileko edota, plana garatzeko eta gauatzeko atxiki zaien beste ente nahiz erakundeetako gainerako karguekiko lankidetzata bultzatze-lanak egitea, saileko beste organo batzuei dagozkien koordinatze-lanen kaltetan gabe.

5. *atala.*– Batzordeak osoko bilkuratan ihardun ahal izango du, eta azpibatzerdeetan ere bai, gai espezifikoak aztertzeke. Osoko bilkuran aukeratuko dira ki-deak, eta azpibatzerdeak osatuko dituzte.

Aurreko parrafoan adierazitakoa gorabehera, aukerarako berdintasunen arloan, lanbidea dela edo norberaren lana dela, luze eta sakon aritu diren pertsonak ere, hitzarekin baina boturako ahalmenik gabe, sartu ahal izango dituzte azpibatzerdeak.

6. *atala.*– 1.– Batzordeak hiru osoko bilkura arrunt egin beharko ditu gutxienez urtean, urtealdia hasterakoan, lehenengo sei hilabeteak pasatzean eta urtealdia amaitzerakoan.

2.– Batzordeak kasu hauetan egin ahal izango ditu ezohizko osoko bilkurak:

a) Batzordeburuaren ekimenez

b) Batzordeko kideen bi herenak eskatuta.

3.– b) apartadu horretan zehazten den kasuetarako, eskabidea idatziz aurkeztu beharko da, eta aztergai izango diren gaien proposamena eta zergatia adierazi beharko dira. Eskabidea jaso eta hortik hamabost egu-

d) Secretario/a: La persona titular de la Secretaría General del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

En los supuestos de ausencia o enfermedad de ésta, realizará las funciones de Secretaría el/la vocal más joven.

Artículo 3.– Corresponden a la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, las siguientes funciones:

a) Aprobar, al inicio de cada año, una propuesta de acciones concretas a efectuar durante el ejercicio por el Departamento correspondiente en el desarrollo estratégico del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dichas propuestas se realizarán en coordinación con el Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

b) Coordinar las medidas a adoptar por cada uno de los Departamentos implicados en la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Proponer al Gobierno y a los Departamentos implicados, cuantas acciones se estimen convenientes en orden al desarrollo y ejecución del citado Plan.

d) Servir de órgano de interlocución permanente entre los Departamentos implicados en el Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

e) Cualesquiera otras que le sean asignadas por normas posteriores.

Artículo 4.– Además de las funciones señaladas en el artículo anterior, corresponde a los miembros de la Comisión Interdepartamental para la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, ejercer las funciones de impulso y colaboración con los demás cargos del Departamento del que procedan, así como de los Organismos y demás Entes a ellos adscritos para el desarrollo y ejecución del mencionado Plan, sin perjuicio de las funciones de coordinación que correspondan a otros órganos del Departamento.

Artículo 5.– La Comisión podrá funcionar en Pleno y en Subcomisiones para el estudio de temas específicos, correspondiendo al Pleno el nombramiento de las personas, integrantes del mismo, que formarán parte de cada una de las Subcomisiones.

No obstante lo señalado en el párrafo anterior, las Subcomisiones podrán nombrar e integrar dentro de ellas, con voz y sin voto, a personas de acreditada trayectoria personal o profesional en materia de igualdad de oportunidades.

Artículo 6.– 1.– El Pleno de la Comisión celebrará, al menos, tres reuniones ordinarias al año, al inicio del ejercicio, al finalizar el primer semestre del año y al finalizar el ejercicio.

2.– Podrán celebrarse reuniones extraordinarias del Pleno de la Comisión:

a) Por iniciativa del Presidente

b) A instancias de dos tercios de las personas miembros de la misma.

3.– En el supuesto del apartado b) del número anterior, la petición habrá de ser realizada por escrito y contendrá la propuesta motivada de los asuntos a tratar. El Presidente convocará la reunión extraordinaria

netan egin beharko du batzordeburuak ezohizko osoko bilkurarako deia. Gai zerrendak, eskatu diren puntuak izan beharko ditu nahitaez eta batzordeburuak beste batzuk ere sartu ahal izango ditu.

7. atala. - Batzordeko lehendakariordeak, hori denez gero, batzordeburua ez dagoenean, haren egiteko guztietan ordezkatu du.

8. atala. - Dekretu honetan ohartematen ez denerako, Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta guztientzako administrazio ihardunbideari buruz azaroaren 26an eman zen 30/1992 Legearen II. Atalburuko II. Idazpuruan, organo kolegiatuentzat xedatutakoa izango da oinarri.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa. - Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Plana gauzatzeko aurrekontua ebaluatzeko, Sailek, Erakundeek eta beraiei atxikitakoek, legez ezarritako ihardunbideari jarraituz, bakoitzak daukan aurrekontuen barruan, ebaluaketa horrek uzten dizkien baliabideak zehaztu eta identifikatzeari ekingo diote.

Bigarrena. - Eusko Jaurlaritzako Sailek, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Plana gauzatzeko sailarteko batzordean ez daudenak, bertako kide izan ahal izango dira, Dekretu honetan jasotzen diren egitekoak bere gain hartu ondoren, eta beharrezko izaten diren arau-aldaketak egin ondoren.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartzen den egunaren biharamunetik hasi eta hamar astegunetako epean, bokalak, berez bokalak ez direnak, izendatu beharko dira, dekretu honetako 2. ataleko c) apartaduan adierazten direnak, hain zuzen.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko apirilak 6.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

dentro de los quince días siguientes al de la petición y el Orden del Día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo el Presidente adicionar otros.

Artículo 7. - El Vicepresidente de la Comisión, en su condición de tal, sustituirá al Presidente en todas sus funciones cuando éste se halle ausente.

Artículo 8. - En lo no previsto en el presente Decreto, la Comisión se regirá por lo dispuesto para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. - A los efectos de la evaluación del esfuerzo presupuestario destinado a la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los Departamentos, Organismos y demás Entidades adscritas a los mismos procederán, de conformidad con los correspondientes procedimientos legalmente establecidos, a determinar e identificar en los presupuestos de cada uno de ellos los recursos que permitan la citada evaluación.

Segunda. - Los Departamentos del Gobierno Vasco no integrados en la Comisión Interdepartamental para la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, podrán pasar a formar parte de la misma previa la asunción de las obligaciones contenidas en el presente Decreto y previas las modificaciones normativas necesarias.

DISPOSICION TRANSITORIA

En el plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente al de entrada en vigor del presente Decreto, deberán ser designados los Vocales, no natos, señalados en el apartado c) del artículo 2 del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.